

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Baloretzko proposamenean, gure enpresa aukeratzeko arrazoi nagusia zonalde bakoitzeko egoera partikularretara, lekuan lekuko eta toki horrek eskaintzen duenera moldatzeko ahalmena da. Tarhib Erakundeak, oinarri berdineko harrera plan bat eskaintzen du. Gure proiektuak herri edo hiri desberdin guztiaz hartzen ditu, dituzten baliabideetatik abiatuz proiektua aurrera eramateko erraztasuna emanez. Tarhib erakundearen proiektua harrera plan baten oinarria da, oinarri hau egoera eta baliabideetara moldatzen da, eta erakundearen egiten dugu moldaketa hori. Abiapuntu gisa Tarhib Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egongo litzateke, baina, eredu Estatu beste komunitate batzuetara, herrietara edo beste herrialde batzuetara eramateko modukoa da. Zerbitzu publiko zein pribatuek, errefuxiatuen ongi etorrian parte hartu nahi duen erakunde orok, gure proiektua abiapuntu bezala hartu, eta gure laguntzaz, harrera plan eraldatua zehaztu eta finkatuta, errefuxiatuak hartzeko prest egongo zen. Horrela, gure bezeroek bertan aurkituko dute gizarte arazo honen konponbide edo zerbitzua.

Balore neurgarriari, hau da, balore kuantitatiboari dagokionez, gure elkarteak jasoko duen dirua proiektua aurrera eramateko erabiliko da. Gure elkartearen zerbitzuak ez du prezio finkorik, oinarritzko Harrera Plan batetik abiatuta, haren iraupenaren sakontzeak edo hedatze eremuak zehaztuko luke zerbitzuaren kostua eta gainera, diru sarrerak proiektuan inbertitzeko erabiliko dira. Diru sarrera horien iturriak hainbat izango lirateke, elkarte publiko zein pribatuetatik, GKEetatik...

Balore kualitatiboari dagokionez, gure bezeroek, elkarte honen zerbitzua erabiltzen dutenek alegia, gure zerbitzuaren inguruan jaso nahi dugun pertzepzioa hau da: sortuta dagoen, baina, egoera zein baliabide desberdinetara moldatu daitekeen oinarritzko plangintza baten antolamendua eta funtzionamendua bermatzen dugula. Gure lana, antolatu dugun Harrera Planaren bidez errefuxiatuen beharrak modu azkar eta egoki batean asetzea izango da.